

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**61/2020 Foru Dekretua, otsailaren 7koa, Diputatu Nagusiarena, onespena ematen diona dirulaguntzetarako deialdi publikori, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko toki erakundeek sustaturik elementu txikiak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku-hartzeak bultzatzeko**

Kultura eta Kirol Sailak erabaki du 2020ko ekitaldian diruz laguntzea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko toki erakundeek elementu txikiak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko sustatzen dituzten esku-hartzeak, arau hauetan xedatutakoaren arabera: 6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondarearena; 12/2002 Legea, uztailaren 11koa, Gaztela eta Leongo kultura Ondarearena; 8/2004 Legea, abenduaren 22koa, 12/2002 Legea aldatzen duena; eta 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.

Horretarako, nahitaezkoa da berariazko esparru bat ezartzea, sailak ematen dituen dirulaguntzen xede diren kultura ekimenak arautzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz eta Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea 2020ko ekitaldirako dirulaguntzetarako deialdi publikoari, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko toki erakundeek sustaturik elementu txikiak kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak gauzatzea bultzatzeko, zeinak 100.000 euroko zuzkidura izango baitu gehienez. Deialdia, bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak arautuko du (2019ko azaroaren 20ko ALHAOn argitaratu zen, 134 zenbakian, eta haren bidez onspena eman zitzaien norgehiagoka bidez esleitzeko Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arau orokorreari).

Bigarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2020rako Gastu Aurrekontuko 70.1.09.75.04.768.00.01 partidatik ordainduko da (xedapen erreferentzia: 105.356).

Hirugarrena. Organo eskudunak, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren proposamena ikusirik, bidezkoa den ebazpena emango du, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau argitarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau argitarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 7a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*

*ANA M. DEL VAL SANCHO*

*Kultura zuzendaria*

*M<sup>a</sup> INMACULADA SÁNCHEZ ARBE*

### **Eranskina**

#### **Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Enklabeko elementu txikiak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeetarako dirulaguntzen deialdia**

##### **Lehenengoa. Deialdiaren xedea**

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea norgehiagoka bidez 2020ko ekitaldirako, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko toki erakundeek elementu txikiak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko sustatzen dituzten esku-hartzeetarako, arau hauetan xedatutakoaren arabera: 6/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ondarearena; 12/2002 Legea, uztailaren 11koa, Gaztela eta Leongo kultura Ondarearena; 8/2004 Legea, abenduaren 22koa, 12/2002 Legea aldatzen duena; eta 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. Eta, hori guztia, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan xedatutakoaren esparruan, zeinaren bidez onetsi baitziren Kultura eta Kirol Sailak dirulaguntzak emateko oinarri arau orokorrak.

##### **Bigarrena. Aurrekontu egozpena**

Dirulaguntzetan emango den zenbateko osoa ezin izango da izan inola ere horretarako dagoen zuzkidura baino handiagoa; hau da, 100.000,00. Kopuru hori Arabako Foru Aldundiaren 2020. ekitaldiko gastu aurrekontuko 70.1.09.75.04.768.00.01 "Elementu txikiak, baselizak eta eraikinak onik zaintzea eta birgaitzea" partidari egoztekoa da.

Esleitu beharreko dirulaguntza bakoitzaren kopurua izango da zazpigarren oinarrian honetarako ezarritako ehunekoen aplikaziotik ateratzen dena, eta, edonola ere, ez du gaindituko 60.000 euroko kopurua eskatzaile bakoitzeko. Kultura eta Kirol Sailaren ekarpena ez da inbertsioa egin ondoren gutzira izan den kostuaren ehuneko 80 baino handiagoa izango.

Arabako Foru Aldundiak, konplexutasun tekniko bereziarengatik nahiz arkitektura balioagatik gomendagarria denean, dagozkion proiektuak idatzi ahal izango ditu, edo obren zuzendaritzan parte hartu, bere zerbitzu teknikoaren bitartez.

##### **Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta betebeharrak**

1. Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko udalak, kuadrillak eta bestelako toki erakundeak izan daitezke erakunde onuradunak. Horretarako, diruz laguntzeko diren ekintzen sustatzaile moduan jardun behar dute.

Deialditik kanpo geratzen dira Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotzen diren egoeretan dauden erakundeak (Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituena).

2. Onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak baldin badira, dirulaguntzaren xede diren elementuen titularrak izan beharko dira edo, bestela, haien erabiltzeko eskubidea eduki (kontratua, hitzarmena, gozamina, etab.) gutxienez bost urtez, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera kontatuta, salbu eta Arabako Foru Aldundiak egiten dituen lagapenak badira.

#### **Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak**

Hauetarako eman ahal izango da dirulaguntza:

1. Onik zaindu eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak gauzatzeko eta katalogatutako ondasun higiezinak dokumentatzeko beharrezkoak diren proiektuak, azterlanak, inbentarioak eta abar.

2. Elementu txikiak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko lanak, aurreko idatz zatian adierazi diren proiektu eta azterlanen arabera egiten badira edo toki erakundeek Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren irizpideekin egindakoetan oinarrituz egiten badira. Halaber, diruz lagundu ahal izango dira zaharberritu beharreko elementuaren ingurunea urbanizatzeko lanak, hiri ikuspegiari balioa emateko nahiz soil-soilik helburu funtzionaltarako balio dutenak.

Beharrezkoa izango da elementu txiki horiek honelakoak izan daitezen:

a) Babes bereziko edo ertaineko monumentu izendatuak, kalifikatuak edo inbentariatuak hauexen arabera: 6/2019 Legea, euskal kultura ondarearena; uztailaren 11ko 12/2002 Legea, Gaztela eta Leongo kultura ondarearena, eta abenduaren 22ko 8/2004 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duena.

b) Udal planeamenduak edo planeamendu sektorialak katalogatuak.

c) Katalogatzeko proposamenen batean, garrantziko arkitektura multzoren batean edo Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo Gaztela eta Leongo Juntak egindako inbentarioren batean jasoak.

Ez dira inola ere diruz lagunduko "Auzolan" bidez egiten diren lanak.

Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa baino (40.000 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta obra kontratuak badira, edo 15.000 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta horniketa edo zerbitzu kontratuak badira), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzailei, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Hiru eskaintzak frogagiriekin batera edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran aurkeztu beharko dira. Haien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea**

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari zuzenduta joan beharko dira, eranskinean argitaratzen den ereduaren arabera, eta, haienkin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Administrazio agiriak:

1. Erakundearen organo eskudunak laguntza programatuak eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

**b) Dokumentazio espezifikoa:**

1. Esku hartzearen xedea azaltzen duen agiria. Bertan, honako hauek agertuko dira:

1.1) Proiektuak, azterlanak, inbentarioak, etab. direnean: idatzi beharreko dokumentu teknikoa idaztea komenigarria dela azaltzen duen memoria.

1.2) Onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko lanetarako: esku hartzearen proiektu teknikoa edo, hala badagokio, aurrekontu zehatza eta txostena, gaitutako teknikariak izenpetua, nahikoa den informazio grafiko eta idatziak osatua.

1.3) Kasu bakoitzari aplikagarria zaionaren arabera, proiektuak, azterlanak etab. idazteko ordainsarien aurrekontua, eta obra zuzendaritzako ordainsarien (arkitektoa), obra gauzatzeko ordainsarien (arkitekto teknikoa) eta segurtasun eta osasun koordinazioko ordainsarien (arkitektoa edo arkitekto teknikoa) aurrekontua.

1.4) Elementuaren kultura ingurunari buruzko txostena.

1.5) Esku hartzearen xede izango den elementuaren eta hura kokatzen den ingurunearen agiri grafikoak edota ikus-entzunezkoak, behar beste eta eguneratuta.

1.6) Obrak egiteko ustez beharko den denbora.

2. Lanen bideragarritasunari buruzko azterlan ekonomikoa eta finantzaketa plana. Horren barruan, honako hauek sartuta joango dira: erakundearen idazki bat, zeinean konpromisoa hartzen duen eskatutako dirulaguntzarekin aurrekontuaren guztirako zenbatekoa osatzeko behar den dirua jartzeko; eta ziurtapena, adierazten duena dirulaguntzarik edo bestelako laguntzarik eskatu edo lortu denetz (baiezkoan, zenbatekoa adieraziz) beste administrazio edo erakunde batzuetatik, helburu bererako.

3. Elementu txikiaren jabetza egiaztatzeko agiria edo hori gutxienez bost urteko denborarako erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duena, ALHAOn deialdia argitaratzen den datatik aurrera zenbatzen hasita. Azken kasu horretan, dirulaguntzaren xede diren lanak egiteko jabearen baimena jasotzen duen agiria ere aurkeztu beharko da.

Eskaerek adierazitako betekizunak betetzen ez badituzte, Kultura eta Kirol Sailak interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da.

**Seigarrena. Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar eguneko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

**Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak**

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

Diruz laguntzeko moduko aurrekontuak: Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak aztertu eta xehakatu ditu eskaeretan aurkeztutako aurrekontuak, diruz laguntzeko moduko aurrekontua den erabakitzeke, zeinak deialdiaren helburuarekin bat datozen jarduketei zuzenean bideratutako lanen atalak jasoko baititu. Horrek alde aurretiko azterlanen, proiektuen eta/edo lanen batura jaso ahal izango ditu. Jardunaren diruz laguntzeko moduko aurrekontu osoak alde aurretiko azterlanen, Proiektuaren, Zuzendaritza Teknikoaren, Betearazpen Materialaren Zuzendaritzaren eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioaren ordainsariak jaso ahal izango ditu. Halaber, partida ez egokiak baztertu edo, hala badagokio, murriztu ahal izango dira, baita gainbaloratutako neurketak edo aurrekontuak ere.

Esku hartze lanak zenbait fasetan programatu ahal izango dira, eta horretarako, hainbat urtetarako (hala badagokio) plangintza ezarriko da, laguntzei egokitua. Plangintza horretan, diruz lagun daitezkeen aurrekontuak ezarriko dira bideragarritasun teknikoaren, esku hartzeak dituen ezaugarri teknikoaren eta epe zenbatetsiaren arabera; gainera, obrak gauzatzeko baldintzak ezarriko dira, adibidez, teknikak eta materialak aldatu ahal izatea edo bateragarri izatea. Hori guztia egingo da aurrekontu krediturik badago, jakina.

Programazio hori zehaztasun metodologikoa eta ohiz kanpoko espezializazioa bultzatzeko egingo da, halaxe eskatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren jarraikako aholkularitzak; izan ere, aldundia bera da eraikitako kultur ondarea zaindu eta jagoteko eskumena duena. Hori guztia ondarearen balioa eguneratzeko egiten da, 6/2019 Legean, euskal kultura ondarearenean; uztailaren 11ko 12/2002 Legean, Gaztela eta Leongo kultura ondarearenean, eta abenduaren 22ko 8/2004 Legean, 12/2002 Legea aldatzen duenean, jasotakoarekin bat etorrira.

Esku hartzearen garapena urte bat baino gehiagotarako planifika daitekeenean, ezarritako faseak banan-banan justifikatu beharko dira, deialdiari egokituta, berdin diolarik gauzatzea batera edo zatika egiten den.

Proposatutako esku-hartzeen balorazioa ondoko irizpideak kontuan izanda egingo da:

a) Esku hartzearen premia	25 puntu
b) Historia eta arkitektura balioa	20 puntu

Kontuan hartuko da babes bereziko edo ertaineko monumentu adierazpena, udal edo sektore planeamenduaren babes katalogoetara sartu izana, Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren edo Gaztela eta Leongo Juntaren katalogazio proposamenen batean bildu izana, garrantziko arkitektura multzo batekoa izatea edo eraikina Arabako Foru Aldundiak edo Gaztela eta Leongo Juntak egindako inbentarioren batean bildu izana.

c) Kultura aldetik duen esanahia eta interesa	20 puntu
---	----------

Kontuan hartuko dira interes etnografikoa, turismo interesa, paisaia interesa eta beste erabilerara publiko batzuetarako gizarte interesa; baita haiek lurralde proposamen estrategikoetan eta proposamen estrategiko orokorretan sartzeari ere (ibilbideak oro har, kultura ibilbideak, Agenda 21, kuadrilletako proiektu estrategikoak...).

d) Urte bat baino gehiagotarako planifikatutako lanetan jarraitasuna izatea	25 puntu
Aurretik diruz lagundutako aldeztutako azterlanetan, aurreproiektuetan edo proiektuetan oinarritutako lanak, baldin eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak finkatutako monumentuak zaharberritzeko irizpideen arabera landu badira	9 puntu
Aurreko faseen jarraipen diren obrak	9 puntu
2017an, 2018an edo 2019an eskatutako proiektua edo obrak, bere garaian dirulaguntzarik jaso ez zutenak aurrekontu baliabiderik ezagatik	7 puntu

Esku hartzeak azpi irizpide bat, bi edo hirurak bete ahal izango dituzte; horrela, puntuak batuko dira osoko puntuaziorako.

e) Aurkeztutako proiektuaren edo memoria teknikoaren kalitatea	10 puntu
--	----------

Hauek balioetsiko dira: aurkeztutako agiri teknikoaren kalitatea, proiektua edo memoria zenbait egokitzen den proposatutako esku hartzeari, metodologia, baliabide teknikoak eta materialak egokiak diren, proposatutako zaharberritzea elementuaren balioa eguneratzeari begira

egin dadin, bat etoriz Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak emandako araudi aplikagarriekin eta monumentuak zaharberritzeko jarraibide eta irizpideekin.

Jarduketa bakoitzean, aurreko irizpideetako puntuazioak batuko dira, eta batura horren emaitza hartuko da kontuan. Horrela lortutako kopuruari zuzenean proportzionala den ehunekoa esleituko zaio, eta eman ahal den gehieneko dirulaguntza, hots, ehuneko 80, emango zaion lortutako emaitzarik handienari (81-100). Goitik beherako hurrenkeran, kasu bakoitzean proportzionalki aplikatzen dira ehunekoak, era honetan:

81-100	ehuneko 80
71 - 80	ehuneko 72
61 - 70	ehuneko 68
51-60	ehuneko 64
50 edo gutxiago	ehuneko 60

Horrela lortutako ehunekoa diruz laguntzeko moduko aurrekontuari aplikatuko zaio, izan ere, modu horretara kalkulatu da "proposatutako dirulaguntza," hau da, jarduketa bakoitzari dagokion laguntza teorikoa, eta ezarritako balorazioaren arabera hurrenkeraren arabera banatuko da: baloraziorik handiena lortu duten eskaerei emango zaie lehentasuna, laguntza hauen deialdiko osoko zenbatekoa agortu arte.

Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna emango zaio d), a), b), c) eta e) idatz zatietan puntuaziorik handiena lortu duenari, hurrenez hurren, aurrekontuko esleipena agortu arte.

Urte bat baino gehiagotarako planifikatutako lanetan, azken fasean, aurrekontu globala hartu ahal izango da kontuan, dagokion laguntza kalkulatzeko.

Gerakinik egonez gero, ezeztatzen bada edo uko egiten bazaio, zenbatekoak deialdian aintzat hartutako eskaeren obra, proiektu eta azterlan osagarrietarako bideratu ahal izango dira; horretarako, txosten teknikoan justifikatu beharko da zenbatekoak handitu behar direla, gertatutako gorabehera eta ustekabeak kontuan izanda. Gehikuntza horiek beharrezkoak ez badira, norgehiagoka bidez egindako proposamenera zerrendan deialdian lehenago aintzat hartu ez den hurrengo eskabidera bideratu ahal izango dira, betiere ekonomia aldetik bideragarria bada.

### Zortzigarrena. Ebazpena

1. Eskaerak balorazio batzordeak aztertuko ditu, zeinak osaera hau izango baitu: lehendakari, Kultura zuzendaria; kide, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikari bat; Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz, eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta baita artxibatzea ere.

Balorazio batzordeak akta egingo du, aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun zerrenda zehaztuko da, hala badagokio.

2. Eskatzaileei ez zaie entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

3. Organo eskudunak, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren proposamena ikusirik, bidezkoa den ebazpena emango du, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntza emateko ebazpenak nori ematen zaion dirulaguntza eta gainerako eskaeren ezespen espresa jaso beharko du.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkua eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta dirulaguntza zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpenaren berri emango zaie onuradunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

6. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin.

#### **Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea**

1. Gastuak zuzen zerrendatu eta justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza.

2. Esku-hartzeari ekitea premiazkoa izateagatik harekin nahitaez hasi behar denean, eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren buruak txostena egin ondoren, emandako dirulaguntzaren ehuneko 40 ahal izango da alde zuzenetik edo kontura ordaindu gehienez, foru araudian jasotakoarekin bat etorritik.

3. Aurrerakina, dirulaguntza emateko ebazpenak hala adierazten badu, ebazpena eman den egunetik aurrera ordainduko da.

Gainerakoa, berriz, egindako gastuak behar bezala zerrendatu eta justifikatu ondoren ordainduko da, dena batera, aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" kenduz. Guztirako gastuak justifikatzeko agiriak 2020ko abenduaren 30a baino lehen (egun horretan barne) aurkeztu beharko dira. Dirulaguntzen justifikazioa, betiere, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hamargarren klausulan ezarritakoaren konforme egin beharko da (horren bidez onartu baitziren Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko oinarri arautzaile orokorrak).

4. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte 2020ko abenduaren 30a baino lehen:

4.1. Diruz lagundutako inbertsioa edo inbertsioak egiteagatik eragindako gastuen justifikazioa, behar bezala zerrendatuta, hau da, gutxienez, diruz lagundutako gastuen adinako zenbatekoa, gastua zuzentzen duten fakturak edo beste agiri batzuk aurkeztuta. Aurkeztu beharreko agiri horiek guztiak jatorrizkoak izango dira, edo bestela fotokopia konpultsatuta.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Era berean, PFEZari (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) buruzko araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuak justifikatzeko.

Ezin izango da aurkeztu beste batzuekin batera finantzatutako programa edo jardueren gastuen fotokopia konpultsatua. Horrelakoetan, ezinbestekoa izango da jatorrizko gastu agiriak zigilatuta aurkeztea.

Jatorrizko fakturekin egiaztatu beharreko gastuei zigilua ezarriko die Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, adieraziz zein den dirulaguntzak eragiten dion zenbateko zehatza, eta, ondoren, jatorrizko agirien kopiak konpultsatuko dira.

4.2. Diruz lagundutako inbertsioaren edo inbertsioen diru sarrera eta gastuen balantzea.

4.3. Diruz lagundutako inbertsioaren edo inbertsioen memoria (haien deskribapena).

4.4. Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.1 artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu izan behar dituen hiru aurrekontuak; alegia, obra kontratuaren diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000 euro baino gehiago denean edo hornidura edo zerbitzu kontratuen zenbatekoa 15.000 euro baino gehiago denean.

Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, faktura elektronikoak gastuak justifikatzeko erabili ahal izango dira.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira konfiantzazko zerbitzu elektroniko kualifikatuen eskaintzaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

Dirulaguntza lortzeko aurkeztutako gastuen ordainketa egiaztatu ezean, justifikatu beharreko diru aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

5. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte 2021eko martxoaren 29a baino lehen: fakturak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

Honako hauek onartuko dira ordainagiri gisa:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da edo bankuaren zigilua jarrita.

– Fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Bankuko jatorrizko kontu laburpenak, posta arruntez jasoak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko ordainagiriak edo fotokopia konpultsatutakoak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune eta autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar) edo jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatutakoak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, adieraziz ordainduta daudela.

Erakunde onuradunak Kultura eta Kirol Sailari eskatu ahalko dio ezarritako epea luzatzeko, betiere egiaztagiriak aurkezteko epea bukatu baino lehen; eta hala badagokio, obrak zergatik atzeratu diren justifikatu beharko du.



Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartu den gastuen aurrekontu osoa ez bada justifikatzen, dirulaguntza jaitsi egingo da gastu txikienaren proportzioan.

Deialdiaren aurreko urtean Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren irizpideekin egindako obra, proiektu edo azterlanen kontura erakunde onuradunak ordaindu dituen fakturak hartu ahal izango ditu bere gain Foru Aldundiak, baldin eta uneko urtean onartutako espediente batean badaude.

#### **Hamargarrena. Dirulaguntzen bateraezintasuna**

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak, alde batera utzita dirulaguntzak emateko arauketa oinarri orokorrek xedatutakoa, bateragarri izango dira Arabako Foru Aldundiaren beraren beste sail batzuetatik edo horiei eraxkitatiko organismoetatik jasotako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin, baldin eta aldeetakoren batek desadostasuna adierazten ez badu eta esku-hartzearen irizpide teknikoak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak finkatutakoak badira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, baldin beste administrazio publiko batzuetatik edo nazioko zein nazioarteko erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako laguntzekin edo bestelako diru sarrerekin batera ematen bada, ezin izango da izan, inola ere, onuradunak egin beharreko inbertsioaren kostua baino gehiago.

#### **Hamaikagarrena. Eginbehar osagarriak**

1. Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak egingo du dirulaguntza jaso duten jardueren jarraipena, eta berak egiaztatuko du ea egokitzen zaizkien beren beregi onartutako proiektuetan, Arabako Foru Aldundiak baimendutako eta diruz lagundutako negozio juridikoetan eta esleipena egiteko onetsi zen ebazpenean jasotako xedapenei.

2. Laguntzen onuradunak diren erakundeek Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuari jakinarazi beharko diote proiektua edo lanak esleitzeko erabakia, hartara gainbegiraketa egin ahal izan dadin.

3. Horrez gain, historia eta arkitektura ondarearen defentsa edota azterketarekin lotutako organismo, erakunde edo elkarte publikoei sartzeko beharra onartuko du, eta, baita ere, Arabako Foru Aldundiak halaxe erabakitzen duenean, jende guztiari bertara sartzeko uztea, kultur eta arte esangura berezia kontuan izanda, horretarako ezarritako moduan.

4. Egindako zaharberritzea eta proiektuak hedatu eta sustatzeko, Arabako Foru Aldundiak aukeran izango du deialdi honen xede izan diren lanen eta agirien irudia eta ikus-entzunezko dokumentazioa eta dokumentazio idatzia erabiltzea.

5. Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute egitarauetan Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren laguntza dutela, iragartzeko karteletan, argazkietan nahiz diruz lagundutako proiektua dela eta argitaratzen diren gainerako material grafiko, idatzi zein entzunezkoetan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

6. Era berean, erakunde onuraduna behartuta dago honako hauek betetzera:

a) Obrak behar bezala gauzatzeko egin beharrekoak; hori dela eta, obren sustatzailea dela joko da.

b) Historia eta arkitektura ondarea defendatzeko eta kontrolatzeko organo eskudunak esku hartzea berrikusiko du lanei ekin aurretik, eta kasuan kasuko proiektuak, memoria teknikoak

edo behin betiko aurrekontuak egiteko orduan zorrozki jarraitu beharko zaie txosten horren xedapenei.

c) Obrak egiten diren bitartean gertatzen den edozein egoera jakingarri Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari ezagutaraztea, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren bitartez. Hori dela eta, hasierako proiektua aldatzen bada, Arabako Foru Aldundiko sail horrek berariazko baimena eman beharko du lanekin jarraitzeko.

d) Halaber, arkeologi azterlana ekar dezakeen edozein aurkikuntzaren berri eman behar da.

e) Elementu finkatu edo zaharberritua segurtasun, osasun eta apaindura egoera egokian zaintzeko konpromisoa hartu behar da.

f) Arabako Foru Aldundiari, egoki baderitzo, azken txosten xehatu bat eman beharko zaio, egindakoaren norainokoa azalduz, lurraldearen historia ondarearen agiritegi eta fitxetara bildu ahal izateko.

g) Kartel bat jartzea, ondo ikus daitekeen toki batean eta obratik gertu, obrari buruzko informazioarekin, obrak dirauen bitartean eta hura bukatu eta sei hilabete igaro arte Kartel hori obraren kontratistak eman eta jarri beharko du, eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak esandako formatuaren arabera egingo da. Baldin eta obrak 30.000 euro (BEZa barne) baino gutxiagokoak badira, euskarria olanazkoa izango da; aldiz, metalezkoa izango da, baldin eta obrak kopuru hori baino gehiagokoak badira. Erakunde onuradunak berak kendu beharko du kartela.

7. Arabako Foru Aldundiak egin nahi diren jardueren ezaugarriei ñabardurak eransteko baldintzak ezarri ahal izango ditu, behartzeko indarrarekikoak, eta erakunde onuradunak, dagokion dirulaguntza jasotzeko orduan, hitz emango du baldintzak horiek onartuko dituela.

8. Dekretu honen babespeko esku hartze bat gauzatzen ez bada, behar bezala justifikatu gabe zergatik gauzatu ez den, hurrengo dirulaguntza deialdian ezin parte hartzeko zigorra ezarri ahal izango da.

9. Dirulaguntza eskatzean edo izapidetzean, obrak abian balira Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren jarraipenik gabe, balioetsi egingo litzateke dirulaguntza ematea merezi duen. Horretarako, kontuan hartuko lirateke obren egoera eta egindako esku hartzeak.

#### **Hamabigarrena. Obren zuzendaritza teknikoa**

1. Diruz lagundutako lanen zuzendaritza fakultatiborako, gutxienez egikaritze materialaren zuzendaria izendatu behar da, hots, erakunde onuradunak izendatutako aparejadore edo arkitekto tekniko bat, eta berorrek lanen segurtasun eta osasun koordinazioa zuzenduko du.

2. Behar-beharrezkoa denean proiektu tekniko bat idaztea, lanen zuzendaritza fakultatiboan, gainera, goi mailako arkitektoa egongo da.


3. Lanei esleitutako teknikariak arduratuko dira Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak finkatutako zaharberritze irizpideak aplikatzeaz.

#### **Hamahirugarrena. Interpretazioa**

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, zalantza hori Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du.

#### **Hamalauugarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira hedabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Arabako Lurralde Historikoaren eta Trebiñuko Enklabearen elementu txikiak onik zaintzeko edota zaharbertzeko esku hartzeak garatzeko dirulaguntzen eskaera</b></p> <p>Solicitud de ayudas para la financiación de intervenciones de conservación y/o restauración de Elementos Menores del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila</p>

Departamento de Cultura y Deporte

Urtea. ■ Año

2020

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración )

### ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> IKZ CIF <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro				<b>Identifikazio zk. ■ N° identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre		
<b>Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social</b> <input type="text"/>				<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>		
<b>Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)</b> <input type="text"/>				<b>Zk. ■ Núm.</b> <input type="text"/>	<b>Letra</b> <input type="text"/>	<b>Eskra. ■ Escal.</b> <input type="text"/>	<b>Solairua ■ Piso</b> <input type="text"/>	<b>Aldea ■ Mano</b> <input type="text"/>
<b>Herraldea ■ País</b> <input type="text"/>	<b>Probintzia ■ Provincia</b> <input type="text"/>	<b>Udalerría ■ Municipio</b> <input type="text"/>	<b>Herria ■ Localidad</b> <input type="text"/>	<b>P. K. ■ C. P.</b> <input type="text"/>				
<b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>	<b>Mugikorra ■ Móvil</b> <input type="text"/>	<b>Faxa ■ Fax</b> <input type="text"/>	<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>					

### JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL <sup>(2)</sup>

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

<b>Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)</b> <input type="text"/>				<b>Zk. ■ Núm.</b> <input type="text"/>	<b>Letra</b> <input type="text"/>	<b>Eskra. ■ Escal.</b> <input type="text"/>	<b>Solairua ■ Piso</b> <input type="text"/>	<b>Aldea ■ Mano</b> <input type="text"/>
<b>Herraldea ■ País</b> <input type="text"/>	<b>Probintzia ■ Provincia</b> <input type="text"/>	<b>Udalerría ■ Municipio</b> <input type="text"/>	<b>Herria ■ Localidad</b> <input type="text"/>	<b>P. K. ■ C. P.</b> <input type="text"/>				


### LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			<b>Identifikazio zk. ■ N° identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
<b>Izena ■ Nombre</b> <input type="text"/>			<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>	
<b>Protokolo zk. ■ N° protocolo</b> <input type="text"/>			<b>Data ■ Fecha</b> <input type="text"/>		<b>Notarioa ■ Notario</b> <input type="text"/>	
<b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>	<b>Mugikorra ■ Móvil</b> <input type="text"/>	<b>Faxa ■ Fax</b> <input type="text"/>	<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>			

Probintzia plaza, 5 – 4.a 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181871. E-mail: [patrimonio-ha@araba.eus](mailto:patrimonio-ha@araba.eus)

4/1

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Arabako Lurralde Historikoaren eta Trebiñuko Enklabearen elementu txikiak onik zaintzeko edota zaharbertzeko esku hartzeak garatzeko dirulaguntzen eskaera</b></p> <p>Solicitud de ayudas para la financiación de intervenciones de conservación y/o restauración de Elementos Menores del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila      Departamento de Cultura y Deporte</p>

**BANKU DATUAK ■ DATOS BANCARIOS**

BANKUA/ BANCO	
IBAN	

*Baimendu egiten dut emandako datuak aurrekontu eta aurrekontu kanpoko burutzapen eragiketarako izapidetzeko erabiliak izateko / Doy mi consentimiento para que los datos facilitados sean utilizados para la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria o extrapresupuestaria.*

**ERAIKINAREN KOKAPENA ETA ESKU HARTZEAREN AZALPENA**  
LOCALIZACIÓN DEL BIEN INMUEBLE Y DESCRIPCIÓN DE LA INTERVENCIÓN

Ondasunaren izena ■ Denominación del bien

--

E-Referencia Catastral ■ Referencia catastral

Udalerría Municipio	Poligonoa Polígono	Etxadia Manzana	Lurzatia Parcela	Azpilurzatia Subparcela	Eraikina Edificio	UF UF

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

--	--	--	--	--	--	--

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

--	--	--	--

Ekintza esku hartzearen azalpena ■ Descripción de la intervención

--

**ONDASUN HIGIEZINAREN KATALOGAZIOA ■ CATALOGACIÓN DEL BIEN INMUEBLE**


Babesa udal mailan ■ Protección de nivel municipal

Euskal Kultura Ondarearen Zentroak proposatuta Monumentu edo Monumento Multzo izateko  
Propuesto para Monumento ó Conjunto Monumental por el Centro del Patrimonio Cultural Vasco

<input type="checkbox"/> Ondasun Kultural Kalifikatua ■ Bien Cultural Calificado	EHAAREN zk. ■ Nº del B.O.P.V.	EHAAREN eguna ■ Fecha del B.O.P.V.
<input type="checkbox"/> Ondasun Kultural Inbentariatua ■ Bien Cultural Inventariado	EHAAREN zk. ■ Nº del B.O.P.V.	EHAAREN eguna ■ Fecha del B.O.P.V.
<input type="checkbox"/> Beste batzuk (Inbentarioak, Katalogoak, ...) ■ Otros (Inventarios, Catálogos, ...)		

Probintzia plaza, 5 – 4.a 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181871. E-mail: [patrimonio-ha@araba.eus](mailto:patrimonio-ha@araba.eus)

4/2

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<p><b>Arabako Lurralde Historikoaren eta Trebiñuko Enklabearen elementu txikiak onik zaintzeko edota zaharbertzeko esku hartzeak garatzeko dirulaguntzen eskaera</b></p> <p>Solicitud de ayudas para la financiación de intervenciones de conservación y/o restauración de Elementos Menores del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño</p>
---	---

Kultura eta Kirol  
Saila

Departamento de  
Cultura y Deporte

### GASTUEN ETA DIRU-SARRERA NAGUSIEN BANAKETA

DISTRIBUCIÓN DE LOS GASTOS E INGRESOS PRINCIPALES SON LOS SIGUIENTES:

**Gastuen eta diru-sarrera nagusien banaketa hau izango da:** ■ La distribución de los gastos e ingresos principales son los siguientes:

#### GASTUAK-ESKU HARTZEAREN KOSTUAK

GASTOS-COSTE DE LA INTERVENCIÓN

Proiektuaren ordainsariak (arkitektoa) Honorarios proyecto (arquitecto)	€
Gauzatze aurrekontua Presupuesto de ejecución	€
Obra zuzendaritzaren ordainsariak (arkitektoa) Honorarios dirección de obra (arquitecto)	€
Betearazten materialaren zuzendaritzaren ordainsariak (arkitekto teknikoa) Honorarios dirección ejecución material (arquitecto técnico)	€
Segurtasun eta osasun koordinazioa Coordinación de Seguridad y Salud	€
<b>GASTUAK GUZTIRA (*)</b> TOTAL GASTOS	€
<b>Kontzeptu guztietan BEZa barne hartzen da</b> (Todos los conceptos incluyen el IVA)	

#### SARRERAK-ESKU HARTZEAREN FINANTZAKETA

INGRESOS-FINANCIACIÓN DE LA INTERVENCIÓN

Bere ballabideak (Guztiratik 25% gutxienez) Recursos propios (mínimo 25% sobre el total)	€
Maileguak Préstamos	€
AFako beste sailen subentzioak (sailen arteko erabakia) Subvenciones de otros Departamentos de la DFA (Acuerdo interdepartamental)	€
Bestelako dirulaguntzak edo laguntzak Otras subvenciones o ayudas	€
Eskatutako dirulaguntza Subvención solicitada	€
<b>SARRERAK GUZTIRA (*)</b> TOTAL INGRESOS	€
<b>(*) Guztizko biak berdinak izan behar dira</b> (*) Ambos totales tienen que ser iguales	

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkairearen sinadura eta zigilua ■ Firma de la persona solicitante/representante y sello



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

## Arabako Lurralde Historikoaren eta Trebiñuko Enklabearen elementu txikiak onik zaintzeko edota zaharbertzeko esku hartzeak garatzeko dirulaguntzen eskaera

Solicitud de ayudas para la financiación de intervenciones de conservación y/o restauración de Elementos Menores del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño

Kultura eta Kirol  
Saila

Departamento de  
Cultura y Deporte

### Oharra (1)

Datu Partsonalak Babesteko dauden arauak betez, jakinarazien dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak egikartu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).

### Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, Helbide Elektronikoa Gaitua (DEH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduratan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeri utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

### Oharra

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Nik, ordezkatzan dudan erakundeak, edo ordezkatzan dudan erakunde gobernu edo administrazio organoetan parte hartzen duen pertsona juridiko, fisiko edo erakunde bakar batek ere ez dugula sexuagalko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria ekintzarik egiten jendea onartzeko prozesuetan edo funtzionamenduan, SLOko 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasunaren Legeko 24(2) artikuluan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.- Nik, ordezkatzan dudan erakundeak, edo sozietate honen gobernu edo administrazio organoetan parte hartzen duen pertsona bakar batek ere ez dugula egun zigor penalik edota administrazio berrizkeriazko sexuagalko bereizkeriazko edota Gizarte Ordenako Arau Hausteak eta Zehapenei buruzko Legearen testu batekina onartu zuten abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak eta emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako marxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko Hamalagarren Xedapen Gehigarrik eratorritako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko arau hausteengatik (besteak beste, eta mugatu gabe):

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako betebeharrak.
2. Ordainsari, lanaldiei, prestakuntzari, promozioari eta gainerako lan baldintzai dagokienez, sexuagalko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria kaltegarriak dakartzaten enpresaren erabaki aldeak.
3. Tratu berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa betetzea eskatzeko enpresan egindako erreklamazio baten edo administrazio edo justizia ekintza baten aurrean langileen aurkako tratua dakarten erakundearen erabakiak.
4. Sexuagalko enplegua lortzeko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria dakarten baldintzak ezartzea.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarpena nahahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarpena nahahi dela ere, baldin eta enpresaburuak, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badio. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

### Nota (1)

En cumplimiento de la normativa de "Protección de Datos de Carácter Personal", le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

### Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una Dirección Electrónica Habilitada (DEH) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

### Nota

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica, física o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con el estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24(2) de la Ley de Igualdad de Euskadi.

SEGUNDO.- Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, estamos actualmente sancionados penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo):

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación.
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por razón de sexo.
3. Decisiones de la entidad que supongan un trato desfavorable de las y los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación.
4. Establecer condiciones que constituyan una discriminación directa o indirecta para el acceso al empleo por razón de sexo.
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma.
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo.
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.